

HITZ BITAN

DELINKUENTZIA. Espainiako Fiskaltzaren datuak

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan mila biztanleko 54 delitu egiten dira urtean

Erredakzioa | DONOSTIA

Arabian, Gipuzkoan eta Bizkaian mila biztanleko 53,91 delitu egiten dira urtean. Espainiako Fiskaltzak emandako datua da hori, eta 2001eko memoriari dagokio. Azken urteotan delituen kopuruak izan duen bilakaerari dagokionez, gorabeherak izan dira, baina 1996tik 2001era %1,89ko jaitsiera izan da.

Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak atzo igorritako prentsa oharrean nabarmentzen duten datua da Espainiako Estatuan mila biztanleko %98,82 delitu egin zirela iaz, kopurua ia bikoiztu egiten dela alegia. Gainera, ia delitu mota-guztietan gertatu da bikoizketa.

Lurraldez lurralde hartuta,

Gipuzkoa da delitu gutxien egiten den probintzia. 44,73koa da delitu kopurua Gipuzkoan, 60,13koa Araban eta 57,82koa Bizkaian.

Delitu motak kontuan hartuta, bestetik, ondasunen kontrako delituak —lapurretak— dira gehienak (mila biztanleko 37,33). Lesio delituak —familia indarkeria, tratu txarrak, bortxaketak...—, berriz, mila biztanleko 5,5 izan ziren 2001ean egindakoak. Askatasunaren kontrako delituak —mehatxuak, txantaia...— mila biztanleko %1,4 izan ziren; segurtasun publikoaren kontrakoak —droga trafikoa, alkoholaren eraginpean gidatzea...— %0,9 izan ziren. Azkenik, ordena publikoaren kontrakoak mila biztanleko %0,66 izan ziren.

GARRAIOA

Gai arriskutsuen garraioaren segurtasunari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Renfek Iruñean

Renfe tren konpainiak gai arriskutsuen garraioaren segurtasunari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, Iruñean. Jardunaldiak ikastaroak izango dira, eta etzi hasiko dira. Yolanda Barcina Iruñeko alkateak inauguratuko ditu ikastaroak, Iruñea Park hotelean, goizeko 9:00etan. Renfek jakitera eman duenez, gai arriskutsuen garraioan trenak gero eta pisu gehiago duela kontuan hartuta antolatu dituzte jardunaldiak, eta prebentzioa nahiz formazioa landuko dituzte. Renferen datuen arabera, trena errepidea baino hamar aldiz seguruagoa da gai arriskutsuak garraiatzeko; baina Nafarroan gai arriskutsuen %88 oraindik errepidez garraiatzen dira.

ERASOA

Ertzaintzak bost lagun atxilotu ditu Bilbon, gizon bati eraso eta ia konorterik gabe uztea egotzita

Herenegun gauean bost gazte atxilotu zituen Ertzaintzak, Bilbon. Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailaren arabera, atxilotuek gizon bati lapurreta egin zioten, Maiona kalean; ondoren, biktima lurtean zela, ostikoak eman zizkioten, ia konorterik gabe utzi arte. Gizona Basurtuko erietxera eraman zuten. Eraso gertatu eta ordu laurdenera lortu zuen Ertzaintzak eraso-zaitaleak atxilotzea, San Frantzisko auzoan. 17 eta 18 urte arteko jatorri magrebiarreko gazteak dira atxilotuak.



ANGELA MEJIAS

Auto ilarak A-63 errepidean.

INGURUMENA

Hautetsi abertzaleek mugaz gaidiko errepide garraioa aztertuko dute azaroaren 9an

Aurki egin behar duten Biltzar Nagusiaren ondorioz, Hautetsi Abertzaleak elkarteak mugaz gaidiko errepide garraioari buruzko eztabaida antolatu du heldu den azaroaren 9an Heletako Herriko Etxean. Eztabaida arratsaldeko 14:30ean izango da, eta nahi duenak har dezake parte. Parte-hartzaileen artean izanen dira Alain

Iriart Hiriburuko auzapez eta A-63 autobidea zabaltze lanen aurka agertu diren bederatzi auzapezen taldeko kidea; Jean Michel Galant Baigorriko kontseilari nagusi eta Nafarroako autobide egitasmoaren kontrako Leia elkarteko partaidea, eta Battitta Boloki Garapen Kontseiluko zuzendaria.

ISTRIPUAK

Ertzaintzak lekukoak eskatu ditu Balmasedan gertatutako istripua argitzeko

Ertzaintzak herenegun Balmasedan gertatutako auto istripua argitzeko lekukoak eskatu ditu. Ez-beharrak BI-636 errepidean gertatu zen, arratsaldeko 16:45ean, eta emakume bat hil eta beste hiru lagun zauritu ziren.

ATXILOKETA

Gazte bat atxilotu dute Donostian 30 bonbila hausteagatik

Ertzaintzak 19 urteko Urnietako gazte bat atxilotu zuen atzo goizaldean, Donostiako Alderdi Ederreko zaldiko-maldikoaren 30 bonbila hausteagatik. Lekuko batek deitu zion Ertzaintzari, eta bi gazte bonbilak apurtzen ari zirela esan zuen. Gazteetako batek ihes egitea lortu zuen.

OSASUNA

Anorexia eta bulimiaren kontrako elkarteek lurralde guztietan zentro berezituak jartzeko eskatu dute

Donostian herenegun eta atzo egindako anorexia eta bulimiaren kontrako elkarten kongresuan, elkarteek eskaera egin zioten osasun zerbitzu publikoari. Hala, lurralde bakoitzean gutxienez alorrean espezializatutako zentro bat ipintzea galdegin zioten administrazioari. Horrez gain, Osasun Koordinaziorako Legea egiteko eskatu zuten, lehen artatzerako irizpide bateratuak ezartzeko, gaixotasunak garaiz antzemateko eta egoki konpontzeko. Bestalde, komunikabideak, publizitatea eta moda arautu eta kontrolatzeko eskatu zuten; batez ere kaleratzen diren argazkiei, ematen diren mezuei eta, modari dagokionez, arropen taila kontrolatzeari begira.

LAPURRETA

Auto batean lapurreta egiten saiatzeagatik gazte bat atxilotu du Ertzaintzak Donostian

Ertzaintzak 22 urteko gazte bat atxilotu zuen herenegun arratsaldean, Donostian, auto batean lapurretan ari zela harrapatu ostean. Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailaren arabera, Gros auzoan aparkatuta zegoen auto batean barruan ikusi zuten ertzainek lapurra, eta barruko guztia nahastuta zegoela eta irrati aparatua kenduta zegoela ikusi ahal izan zuten. Gazteari identifikatzeko eskatu zioten ertzainek, eta autoa berea ez zela ikustean atxilotu zuten.

Euskara irakasleak
behar ditugu

aek

Nafarroa

Tlf: 948 22 02 13

e-posta: nafarroa@aeknet.net

Helduen Euskalduntze Alfabetatzean diharduen erakundeak **ZUZENDARI-GERENTEA** behar du.

Ezinbestekoak izango dira:

- Goi edo Erdi mailako Unibertsitate titulua
- EGA

Baloratuko da:

- Sektorea ezagutzea
- Kudeaketa mailan eskarmentua

Interesatuak bidali Curriculum Vitaea azaroaren 11 baino lehen Donostiako **954 Postakutxara**.

Hautagaiei hamar eguneko epean deituko zaie

Iruñeko argitalpen eta diseinu enpresa berri batek pertsona bat behar du honako lanposturako:

GERENTEA

Profila:

Lan antolaketarako gaitasuna duena
Ekonomia eta informatikan ezagupenak dituena
Merkataritza alorrean trebea
Euskalduna
Antzeko enpresetan izandako eskarmentua baloratuko da.

Interesa duenak igor dezatela curriculuma helbide honetara:

340 posta-kutxa, 31080 Iruñea edo
emailaz **gerentea1@hotmail.com** helbidera.